

Bi aldetako balioak Mixiolari euskaldun bati

Aita Santuaren Eliz-Gutunean, 20'garren zenbakian, au dio: «Gizadiaren aurrerapenerako egunetik egunera gizon ikasi ta aituak ugarigo eskatzen ba-ditugu; oraindik geiago ta azkarrago bear ditugu pentsalari sakonak, gizonak bere burua ezaguta ta arkitu dezan, gizakotasun berri baten bila lan egingo duten jakintsuak, goragoko balioak aintzatzotzat berri ta maitasuna, lagunartea, otoitza ta goi-ikuspena indartuko duten langilleak.

Gaurko munduaren irtenbidea, gizon osoaren eta elkartuaren aurrerapena sendotzetik etorriko zaigu. Ortarako gizona osorik eta beste gizon guzietan elkartuta aintzatzotzat aritu bearko da. Ta au, maila guzietan: diruketan dala, lan aldetik dala, industri-bidetan, sal-erosketan, aberastan, diru-eragiketan, etekiñetan eta jan-edanetan.

Beste aibeste egin bearko da gizarte-sailean: zuzentasuna, pakea, bizibabesa, familia, lana, askatasuna, dintasuna, batasuna ta aber konbent artuaz.

Eziera-bidetan ere aurrera jo bearrean gera: erti-lanak, espirituarekiok, gizonaren jo-muga, otoitza, maitasuna, goi-ikuspena, lagunartea, adimena, buruz eta borondatez egosiaz.

Benetako aurrerapenak, bizi-maila berakoetatik, goi-maila gizakio-gara darama gizadia. Gizona ezpaita gorputza bakarrik; gorputz eta anima baizik; eta bi alderdi auek alkarrekin eraman bear dira gizakotasun oso batera. Emen dute beren lekua jakintzak eta espiritu-erazkerak. Au ezinago da auztu beñiere: gizonagan oso loturik daudela diru ta gizarte-gaiak, eta auekin lotuago, jakintza ta espiritu-saillak.

Gizonaren izaera berak eskatzen du lokarri au ez etetzea. Aurrera edo itzera dator gizona, bere osoan aurreratzeko espada. Bide au gizon bakotzak eta gizartearekin alkatuak irixi bear du. Ta balio auek bere albia dute: anima gorago ta gorputza beerago. Alki auek azpizko gora aldatzen ba-dera, galduak gera.

Balio auetatik batzuek, gure azken-mugak dira; ta beste batzuek, muga oietara iristeko bide diranak. Ontan ere eztegu begirik galdu bear; aiek, auek baiño baliotsuagoak ditugu. Ez dezagun paisaizko lekua, gure azken-egotzarako aukeratu.

Onela gertatuko litzaguieku, gizonok maitasunez alkatu bearrean, diru-gose indarrez, indar-egarri bidez elkartuko ba-gifia. Kutizi auek bereala elkarren kontrako bururakitan nastuko ginduzkete.

Lanak-adibidez, gizon batzuek beren bizibide-konturamena pizten die, eginbearean burutapena sendotzen die, lagun-urkoarekiko karidada esanzen die. Beste batzuek, berekoieria, naspillea bizi-arazten die ta or dioz gizona lotzera ta azpiratza.

Alde batetik, liberalkeri diru-gosea jaitzen zaigu, berekoi ta buruga-bea. Onak ezta gizarte-laguntza asmorik, ez geroko balioen begiramenik, ez aurrerapen-ametsik. Onen legea, ikubilla, indarra, aginte erriki gabea da. Beste aldetik dator sozialismo lur-zalea ta Jankorik gabeko komunisten iripidea. Auek, ez dute beste mundu ta bizitzaren gogorik. Gizonaren askatasun eta dintasunik ere, ez dute errespetatzen.

«Populorum progressio» edeki asko adierazten digu, nolako bearrekoa dan, aurrerapen-bide auek aurrerabakitzea. Ta ontan Gobernuak duten aurreneko tokia. Baiña bide batez, guzti Gubernuepen lotzeak eta erabaki okerrak arteak, zenbat kalte ekarri dezaken ere aurreran jartzen diru.

Mailak ditu aurrerapen onak, eta goi-beak eta ezker-eskuiki ondo gorde bearko dira, ondoren txarrik ez jasotzeko. Bizi-bide atzeratuetik, maila obeatara jo bear da berriz. Gure bizi-legeak gizakioagoekin egin bear ditugu.

Bizi-lege atzeratuak or daude: askoren bizi-zeñiak, goseak galdutako lur zabalak; gizonak bizi izateko bear dituan baldintzak; berekoieriz jota dauden biotzak; lagun urkoarekiko errikerik ez duten diru-pilatzailleak. Gobernu indar-zaleak, aginte zapaltzailleak eta erabaki okerrak gizarte azpiratzeko ametsetan bizi diranak...

Bizi-lege gizakioagoak ere, or dauzkagu: gizarteari bizitzeko bear duan maila eskeltzea; gizonaren premi ta auziak gaintzen laguntzea; eskola-bideak guzian eskutan jartzea; jakintza gaietan aberastea; besteen dintasuna aintzat artzea; diru-gosea beretzeta; guzian onerako diranak ingurartea; pake-egarria sortzea...

Itz batean: Jankoarene doal dan fedea irazkitzea ta borondate oneko gizonen elkartea karidade bidez eramatea, orra aurrerapiderik egokia eta azkarrena.

Eibar'ko San Andres...

(12'garren orrialdetik)

ko au, XIII-gn. mendean sortua da. Orrez gainera, bada azterrena beratik Ama-Birjiña erromaniku baten irudia aldendu zala.

Bizkaiko urregio erria, Berriz degu. Bertan, San Juan'go eleizan, XII-gn. mendean sortua, oraindik ur-bedinkatu ontzi erromanikoa gordetzen da eleiza zarraren atzartan.

Beste bide bat Markiña'tik etorri zitekeen. Markiña-Etxebarriko eleiza ere San Andres Apostuluaren izenena da, eta XIII-gn. mendeko prozezio gurutze bat gordetzen da bertan. Bidean degu Barinaga San Pedro eleizaren ki ta belaxe Aginaga, Eibar'ko auzoa, San Migel eleizaren ki, ta apdik San Pedro da goan Akoldiara bidean, San Ro. man.

Eibar'ko San Andres Apostuluaren agiririk zaarrena 1267'koa da. Orduango eleiza ura, erromanikoa besterik ezin zitekean izan. Ta, oraindik-orain aren agiri eder bat gelditzen zaigu, orainxe urre urte arkitu nuan San Pedro'ren irudi eder bat. San Pedro au eta Azaingoa Kristo-gurutzatua (au galdua da) ditugu San Aginaga'rako errozme bidearen aintziatasunaren agiri adigarriak. Ta, inguru oietako bide-uruterik garrantzikoena zan noski Eibar'ko erria, bere San Andres Apostuluaren eleiz nagusiaren ki eta bere ondano zan «Arrateko Amaren Kofradia»-ren menpeko Hospitalaren ki.

Gipuzkoako San Andres Apostuluaren eleizeri buruz mintzatzen ezin genezake utzi aipatu gabe Or-

maiztegiakoa, bataio-ponte erromaniku eder bat baita bertan.

Berriz, inguru onetan, aintzin denbora aietan San Andres'ek zuan izen aundiaren adigarri: Astigarribian (Mutriku partean, naiz eta Deba ibai bazterrean izan), roñ-eko agiria, erromaniku aurretiko leioa bat eta transizioko Kristo zurezko bat, XIV-gn. mendekoa noski, orain urte gutxi galdu dana; Markin-Etxebarriari gurutxe erromaniku bat XIII-gn. mendekoa; Eibarren, San Pedro erromaniku bat XII-gn. mendekoa; ta, Zaldibarren, eleiza XIII-gn. mendean sortzearen agiriak (gaur ez da eleiza zarraren arastorik) eta Andra-Mariaren irudi erromaniku bat aldendua.

Aibeste agiriren aurrean ezta zalantzarik X edo XI-garren mendetik, gutienez, bazirala errozme bide auek eta Eibar'ko San Andres'ek ortik duela bere jatorria. Ta, idatzitako agiriak urri arkitze onetan kontu izan bear da emengo eleizak ez zirala iñungo apezpikuen mendean, patronato edo unibersidad mailakoak ziralako, ta orregatik ez zetula idatzitako agiririk euki bearrik. Orregatik, arkitzen diran agiri bakarrak patronatu aldaetarenak edo donazioenak dirala.

Bukatzeak, ain zara ez bada ere, adigarria da Berrizaren arkitzen dan iragarria. Zaldibarrera bidean. Olakuetako baserri batean, leioaren gainekaldeko arlandu batean IHS'ren ondoren: «Camino de San Juan de Luz, 1706», jartzen du, errozme bidean erakutsi nairik noski.

JUAN SAN MARTIN

Antonio biotzeko lagun zarra: Lengo batian urtu det Congo-tik eskribitzen didazun karta. Euskeraz benetan jator idazten zenuan, baiño oraingo karta au, graziazki prantzezz dakidana. Ikusten da garbi-garbi iru edo lau izkuntza egunero nastu bearrean izaten zerala.

Ez dakizu asko zenbat estimatzen didazun zure mixiolari zalantzak orren zeatz eta barrenetik neri argitua. Artikulo bat eskribitzeko gaia ematen didazu. Zure kasuan egon litzeko beste zenbat mixiolari euskaldun, eta gaurko Elizan apaiz ez geranok zedozerxo eman genezakeala iruditzen zaiz. Orain eskubide ori eman digute beintzat.

Zinela zaudela oso eta beltzen arteko zure mixiolari amets erdi-etsiak agertzen dizkidadu... Goazan takataka, pausorik-pauso. Zure euskal izakera benetako, jnola agertzen dala gero egiten didazun kartan! Galderra bat egin nai nizuke aurren-aurren. Ez ote zera art geiegi berrazterzen zuren inguruan dauzkatzun beltz oriet? Euskaldunen defetorik aundienetako bat josten det auxe. Edo dana edo ezer ez. Bi mutur oien bitarteko tarteakin, zergatik ez konpormatu? Dana

ezin danean ezer ez —esaten eta egiten dakigu askotan. Aldana egin aldianan zez ote litzake obeto? Aldana egin... ¡Aldana!

Gizona dan bezela artu bearra dago. Zintzoa eta zuzena zera zintzorik eta zuzenik mundu ontan bat baldin bada, baiño ekizoztuo aundia litzake inguruan dituzun danak zure zuzentasunare beartu nai eraztea.

Gizatarrak mundu guztian daude, eta nola ez, baita beltzen artean ere noski. Gizona ez da aingerua, baiño ezta ere askok utse duten ain txarra. Eta asko oriek bere probetxu utzez dan baiño gaitztoago agertu nai ligitete.

Euskaldunak kondizio berezi bat ba degu. Joaten geran tokira, baita munduko aizen mugatara joaten gerala, bertako egiten gera. Kondizio on auxe danak aitoritzen digute. Nik dudarik ez det zuk ere egokitasun au ba dezula.

Baiño auxe ere esan nai nizuke. Orain berreun urteko mixiolari ixorti bat agertuko dizut. Aita Mendiburu, Oartzungo jesuita mixiolari pamatuaren berri

(7'garren orrialdean jarraitzen du)

Dokumentu berri bat

Naiz ta noiz edo noiz, —zoritxarezz gutxiegi-gaur egun Elizaren ta munduaren ikururako, dokumentu berri bat aurreratu zaigu guztiz pozgarria. Beste oiur astertzeleak zabaldu nai izan du Elizazki batek, ez ba'da bear bezela zabaldua izan. Ondoren aiatuko dutan au «Populorum Progressio»-ren semeetakoa dirudi, izenpetu dutenak dituen bezela. Gaur ain gogoan degun «Irugarren munduari» eskeñia, ta bertan buru diran gotziak egina.

Agerkai au izenpetu dutenen artean arkitzen ditugu: Helder Cámara, Mercier, Hubert, Franck, Pereira da Costa... amabosteko taldea osatzen du. Agerkai edo dokumentu au, iru zatitan banatzen dute: —Azkatasuna. —Erriarekiko leialtasuna

—Jankoarene itzari bear zaion leialtasuna.

Luzeegi ez nadiñ, saiaturko naiz adigarri bizitzaren, orri oien zear datorren ideiak.

ITZAUUREAN: garbi azaltzen dute Gotziak, Berri Onari bear zaion leialtasuna, batik-bat azalduz irugarren munduak daukan egoera gaur.

Beren asmoa xoiki ta pikzor agertuaz, betekizunak argi ta garbi izendatu, Eliza osoaren (Artzi, apaiz ta laikoen) egoera argitaratu, eta negar-samiaren menpean dagon irugarren mundu oneri laguntza eskeñi.

Zuzentasuna eta askatasuna egarri duan irugarren mundu oneri zera askabide bakarkioke Eliza'k?

Mundu orretako («le proletariet de l'humanitat») 15 Eliz-Artziarik erantzun au damaiete:

1) **Lendabiziko atalean**, diona, bildu dezakegu oldozmen onekin: irugarren munduko letrialrik alda-kuntza sakonak egin bearrean dira, zuzentasun gabeko egoera ontatik irteketok; aurrerantzean ez dezaten ezagutu gaurdañoko zapaltze ta menpekotasun zitaila. Badira, noski, erreboluzio on ta bearezkoak, baiña, zer motakoa, beraz, izango da Eliza'ren joera? Zifetz, badugu zerrren zalantza, batez ere, ainbat sasi-ekzontza dakusunean —uxatu bear diran egoerak bestetik— Eliza'k antziñatik izan baitdu ontzat elkartu au. Baiña, gaur egun ere, Artzi auen menpean, badugu besteruntz prolemak ikusteko arazoia ere. Beteko, eliz-araudiak ez du zer ukatzerik erreboluzioaren zilletagiatasuna. Bestetik, Batikano Batzarraren jarraipena, gizaitearen serbitzaille agertu zaiguna, batez ere irri beartsunena, eta ludioriko diruztazarengandik aske nai lukeana.

2) **Bigarrenean**, ideia berezi bateri eultsi nai dio: erri bateri bear zaion leialtasuna, kristau guztien batasuna lortu, erri zapalduen laguntza biur ditzeten. Bidebatez, kristauen kontzientzian erne ditekenez kezkarri iritien diote aurrera: «Errudun litzeko kristauak, ez ba' lirake batuko beren erri ta aberria-ekin, leialketa maltzur bat sortzen danean.» (1) Ez da naiko ezer egin-gabe, besoak tolestatuta gelditzea. Ta orregatik jarraitzen dute: «Borondate oneko kristau, eta baita ere gizon guztiak, ezinogo dute ukatu laguntza au, beren ondo-izana ta

beren patrikaren kaltegarri izango ba'litzta ere, sozializazio zabal baten onerako biurtzen danean.» (12). Erriarekiko leialtasunak eskatzen du au guztia, norberaren kaltegarri biurtuko ba'leioa ere.

Oldozmen onen inguruan beste-tzuk dakarzikigute:

a) **Jabetza pribatuaz**: Au izan da irugarren munduak izan duan egoerarik aulena. Adibidez, Later Amerika ar dezagun. Bertan, 100'ko 70, 100'ko 1'5 koen eskuetan dago lur-osoa, lurrik ez duten nekazariak 30 milioi diranean. Eliz Artziarik, diote, kristautasunaren aurkakoa dala jokabide na, ta bide batez Idazteun'eko eta Guraso Santuen itzekin indartzen dute beren pentsakera.

b) **Erreboluzioaren kristau-ikutua**: Zuzentasungabeko egoera onen errudun Eliza bera da bere maillean. ainbat ontasunaz beterikoa, aberastua azaltzen zaigunean arpe-gira. Eliza'k, beraz, aldendu bear litzeko ontasun oiek, edo beintzat, ez ba'du nai, ontzat artu bear luke. eskabide auek elburu duten erreboluzioetan semeak astintzen dakin jainko eskua dala tarteko. Gañera, era ontara, erreboluzio orren ondorio bezela, askozak gei-ago biurtuko litzake Kristo'ren benetako Eliza, orduan bai litzake benetan txirotasunaz beterikoa.

c) **Azkenengoz**, ainbat aldakuntza irakiten dan munduan, bi egoera ikusten ditugu: *kapitalismoa ta sozialismoa*. Gal onetan, naiz ta ezagunerazi lenengoakin, kapitalismo-koen, izan duten alkartasuna, bigarrenez aiatuta basarkezten dute, zer ikusi aundiago daukalako idazteunarekin.

3) **Irugarrengoz**, argi ta garbi erakutsi ondoren, gizonari bear zaion begirunea, Jankoarene irudia

Zenbat buru ainbat aburu

Zuzendari jaunna:

Azaroaren bosteko ZERUKO ARGIA'n San Martin adiskideak ohar batzuek egin dizkiu "Jakin"-eko nere lan bati. Honetatik, irakurleentzat, zerbat esan nahi nizuke.

Euskalduntasunarekiko eztabaida hau ez det ZERUKO ARGIA'n erabili nahi. "Jakin"-erako uzten dut.

Nere lana idaztean ez nuen San Martin'en lanari erantzuteko asmorik. Zuzenean behinik-behin ez nion erantzun nahi. Agian, berak aipaturiko zerbat nik ere aztertu badut ere.

Eztabaida-lagun denak ez nituen, nere ezitza, berdinu. Ez zen, behintzat, nere asmoa. Irakurriak bakarrik ez, entzunak ere gogoan nituela jardun nintzen. Eta, jainki, ezidit egundoguziok berdin ikusi (ZERUKO ARGIA'ren ale hori testigu).

Biet-Nam aipatu badut honetarako izan da: urrutitako herri baten alde ari diren guztiak —hemengo ta kanpokoak ere— urbiliko ta gertuko herriak —triki ta haundi— defenditzen ikas dezaten. Han injustizia dena, hemen ere injustizia baita, alde denak salbatuta ere. Beraz, Jon laguna, bat gatoz.

Ez dut uste izan sekula euskaltasuna unibersaltasunaren kontra donik. Gizadi osoa maite nahi badugu, geure euskal-gizakiaren egin behar-ko guk.

Besterik ez, Zuzendari jaunna, ta eskerrak ZERUKO ARGIA'n onhartu nauzulako.

JOSEBA INTXAUSTI